

9

## Verano 1993

Carla Simón (Espainia, 2015, 93´)

Opera prima onenari emandako saria, Nagioarteko Epaimahaiaren sari handia (KPlus atal orok.) Berlingo Jaialdian; Urrezko Bignaga, Kritikaren Feroz saria, gidoiarentzako Dunia Ayaso saria 2017an, SGAE Fundazioak emana Málaga Jaialdian; eta Cam-a-Lot & Filmmore Cinema Emerging Talent Lehen saria Holland Film Meetings jaialdian.

Zuzendariak bizitako gertaera batean oinarritutako filma da; Fridak, sei urteko neskatxa batek, bere bizitzako lehen uda pasatu behar du adopziozko familia berri batekin, ama hil eta gero. Hurbileko ingururik urrun, landa eremu bete-betea, neskatxa ahal bezala moldatu beharko da bere bizimodu berrian. Filmak dolua aztertzen du, baita heriotza kudeatzeko modua ere, bai haurtzaroan bai helduaroan.

**Carla Simón.** Debut bikaina egin du opera prima honekin, *Women* edo *Lovers* film labor experimentalekin arrakasta lortu eta gero –horien ondotik, *Lipstick* eta *Las pequeñas cosas* etorri ziren–. Filmak zuzendariaren istorio pertsonala kontatzen du, haurra zelarrik gurasoak galdu baitzituen, hiesak jota.

Gonbidatua solasaldian: **Carla Simón**, filmaren zuzendaria.



14


asteazkena  
11:00  
eta  
20:00etan

## La idea de un lago

Milagros Mumenthaler (Argentina, 2016, 82´)

Izendatua film onenarentzako Urrezko Leopardo saria eskuratzeko, Locarnoko Jaialdian (2016). Nagioarteko Lehiaketa

Inés argazkilaria da, 35 urte ditu eta haurdun dago. Laster ama izan behar duenez, argazkiz eta poema pertsonalez osatu duen liburua bukatu nahi du lehenbailehen editorearekin batera. Liburua zehaztuko prozesua, pixkana-pixkana, bere iragana ezagutzeko bidaia intimo bilakatu da, eta, horretan, amarekin izandako harremana, anaia eta aitaren hutsunea –Perónen garaian desagertu zen– azaleratuko zaizkio. Hori guztia udako oporraldiak ematen zituzten parajeetan, ondoan laku bat duen herri batean.



**Milagros Mumenthaler.** Zinemako zuzendaria, gidoilaria eta ekoizlea, Argentinan jaioa. Jaialdi batzuetan hartu du parte hainbat lan aurkeztuta; horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: *El Patio*, saritua Buenos Airesko Zinema Independentearen Nazioarteko Jaialdian, 2004an; eta bere lehen film luzea, *Abrir puertas y ventanas*, film onenari emandako Urrezko Leopardo sariaren Locarnoko Zinemaren Nazioarteko Jaialdian, 2011n. Horiez gainera, beste lan hauek ere egin ditu: *Amancaay* (2006); *Cape Code* (2003) eta *¿Cuándo llega papá?* (2000).

Gonbidatua solasaldian: **Vanina Vázquez**, lizentziaduna Psikologian eta Musikan; aditua Generoaren arloan eta Familia Bitartekaritzan. Proiektuen teknikaria Eguale Aholkularitza-entresan –Generoan espezializatua– eta kidea, 2006tik, Iruñeko Psikoanaliaren Institutuko psiko-analisiari buruzko mintegian. Les Cinéphiles-eko kidea.

## Film laburrak femeninoan

**La invitación** Susana Casares (Espainia, 2016, 14´). Egun batean, eskolan, ikaskide batzuk etxera lo egitera eramateko konpromisoa hartu beharko du Silviak.

**La Isla inalcanzable** Sara Renau Wehr eta Carla Torre (Espainia, 2016, 3´). Zer gertatzen da ezarritako patroiekin bat ez datorren gorputz batek feminitatea desitxuratzeko duenean? Bere gorputzean gatibu bizi den emakume bat –endekapenezko gaixotasun bat du– eta bere gogoeta sakonak, zenbait gai zalantzan jartzen dituztenak, hala nola bere feminitatea, “genero” kontzeptua eta egungo gizartean hartzen duen lekua.

**Yerbabuena** Estefania Cortés (Espainia, 2016, 15´). Julia, gazte barnerakoi bat, Maiaren kontsultara joan da; han, ustez betiko lozorroan murgilduak ziruditen zenbait oroitzapen azaleratu dira berriz ere.

**Zarpago** Nerea Castro (Espainia, 2015, 14´). Mar eta Xara lagunek aspaldiko partez egin dute topo urruneko mendi-paraje batean. Dena prest dago klandestinitatera jauzi egiteko.

**Einstein – Rosen** Olga Osorio (Espainia, 2016, 10´). 82ko uda. Teok esan du har-zulo bat aurkitu duela. Anaiak, Óscarrek, ez dio sinisten... oraingo behintzat.

**500 palabras** Oihane Amenabar (Espainia, 2016, 9´). Irakasle batek idazki bat egiteko eskatu die ikasleei, haurtzaroan gertatutako pasadizoren bati buruzkoa.

**Lucrecia** Eva Marín (Espainia, 2016, 13´). Laster 50 urte bete behar dituen emakume aktore baten bizitza kontatzen du Lucreciak. Nekez ari da bizibidea lortzen lanbide horretan, gero eta lan-eskaintza gutxiago helarazten dizkiotelako, zeren eta gaur egun oso paper gutxi prestatzen baita adin horretako emakumeentzat; gauzak horrela, emakume anonimo bilakatu eta lan bila hasi da, edozein lan, baldin eta argia, ura, janaria eta halako oinarriko gastuak ordaintzeko aukera ematen badio.

**Camino de agua para un pez** Mercedes Marro (Espainia, 2016, 8´). Gauda da, eta Óscarrek zera ikusi du leihotik begira dagoela: arrain koloretsu bat ur zikinoko putzu batean saltoka! Bi katu zelatan ari dira itzalpetik. Óscarrek arrainari lagunduko dio gaueko Latinoamerika ero batean barna, ur-eskasia atze-oihal gisa hartzen duen abentura bizi batean.

**Elegía** Alba Tejero (Espainia, 2016, 15´). Ikasgelako bi neska hil eta gero, Julia ez da gauza tristura-sentimendurik sentitzeko. Dolu-giroak eta erremin sakon batek itota, ondorio larriak ekarriko dituen zerbaitez idatzi du.

**Cuando yo era pequeño** Elena Molina (Espainia, 2015, 11´). N´Sele Malone-ren familia aldi behin biltzen zen txotxongiloen ikuskizun inprobisatuak ikusteko, udan osaba Burunditik itzultzen zenean. Malonek hamabi urte zituen, eta ez zien txotxongiloek interes handirik eskaintzen, futbolak baizik ez baitzuen erakartzen. Egun batez, kalean jolasten ari zela, bere bizitzaren norabidea arras aldatu behar zuen zerbaitez gertatu zen. Gaur egun, 20 urte geroago, Mendebaldeko Afrikako totxongilolari ezagunenetako bat da, eta bide bakarra du bere baliabideak askatu eta eraldatzeko: Burkina Fason duen tailerrean egiten dituen txotxongiloak.

[www.muestracineymujeres.org/](http://www.muestracineymujeres.org/)

15

osteguna  
11:00  
eta  
20:00etan

## Rara

Pepa San Martín (Txile, 2016, 92´)

Epaimahaiaren saria Berlingo Zinema Jaialdian, 2016an; Horizontes Latinos 64 saria eta Sebastian Latino saria Donostiako Zinemaldian, 2016an; Film Luze onenarentzako saria eta emakume aktore onenarentzako saria Lisboa Zinema Gay eta Lesbikoaren Jaialdian; Caleuche sariak emakume aktore protagonista onenari eta emakume aktore laguntzaile onenari, Chileactore Txileko Aktoreen Korporazioak emanak.



Istorioak Txileko Karen Atala epailearen kasua hartzen du inspirazio-iturri; hari, 2003an, alabean zaintza kendu zioten lesbiana izateagatik. Alaba nagusiaren –Sara, 13 urtekoa– ikuspegitik kontatzen da istorioa, ez baitu batere arazorik ikusten ama beste emakume batekin bizitzearekin, nahiz eta aitak oso bestela pentsatzen duen.

**Pepa San Martín.** Antzezpena ikasita, hainbat antzerki-muntaketetan parte hartu zuen. Gero, 2004an, zuzendari-lanetan hasi zen, eta Txileko eszena berriaren parte bihurtu zen. Zuzendari ezaguna da zenbait lanengatik, hala nola *La Ducha* (2011), *Gleisdreieck* (2012) eta *Un hombre llamado Ove* (2017ko urtarrila) filmengatik.

Gonbidatua solasaldian: **Gracia Trujillo Barbadillo.** Doktorea Soziologian eta irakaslea Gaztela-Mantxako Unibertsitatearen Hezkuntza Fakultatean (UCLM). Aktibista lesbiana da, eta bere ibilbide profesionalan zenbait gai ikusarazi ditu, honako hauek adibidez: mugimendu lesbikoaren historia Estatu espainiarrean, *Identidades y acción colectiva un estudio del movimiento lesbiano en España, 1977-1998* doktore-tesiarekin edo *Deseo y resistencia. Treinta años de movilización lesbiana en el Estado español (1977-2007)* liburuarekin; jazarpen transfobikoa, *Profesorado, sistema educativo y acoso escolar, ¿dónde estamos y qué está fallando?* lanarekin, eta ahaide-harreman ez heterosexuak, *Mi cuerpo es mío: Parentalidades y reproducción no heterosexuales y sus conexiones con otras demandas* lanarekin.

16

ostirala  
11:00  
eta  
20:00etan

## Marie Curie

Marie Noëlle (Koprodukzioa: Alemania, Frantzia, Polonia, 2016, 100´)

Zinema alemaneko sariak jatorrizko soinu-banda onenari, makillaje onenari eta jantzi onenari.

María Salomea Skłodowska-Curie –Marie Curie izenez ezagunagoa– zientifiko poloniarren biografia da. Hark bi Nobel sari jaso zituen, eta aurrendaria izan zen erradioaktibitatearen arloan. Gainera, Parisko Unibertsitatean lehen emakume irakaslea izanik, establishment akademiko frantziarraren antagonismoa jasan behar izan zuen. Filmak, garai haren halako deskripzioa eginez, Curiek arlo zientifikokoan lortutako aurkikuntza eta garaipen berri ematen du, eta kontatzen du nola haiek gurutzatu egin ziren haren bizitza pertsonalarekin. Biografia-lan honetan, pentsamendu- eta ekintza-askatasunaren defentsa egiten da, bizitzaren esparru guztietan, eta arau sozialen erronka ere islatzen da.

**Marie Noëlle.** Zuzendaria, idazlea eta ekoizlea, ezaguna, besteak beste, *La mujer del anarquista* (2008) eta *Ludwig II* (2012) lanengatik.

Gonbidatua solasaldian: **Adela Muñoz.** Kimika Inorganikoaren katedraduna Sevillako Unibertsitatean. Zientzia eta emakumeek buruzko dibulgazio-lanak idatzi ditu, hala nola *Historia del veneno. De la cicuta al polonio* (2012), *Biografía de la científica Marie Skłodowska-Curie* (2013) edo *Sabias. La cara oculta de la ciencia* (2017) saiakerak. 2015ean, Meridiana saria eman zioten, 2015eko epaimahaiaren aipamen berezia, Andaluziako Juntako Institutu Andaluziarrak emana, bere ibilbide profesional eta pertsonalarengatik.



## Saio guztiak Golem Baionan dira

### PREZIOAK

Goizeko saioa: Astelehena 4 € / Asteazkena 3,90 € / Gainerakoak 4,50 €  
Arratsaldeko saioa: Astelehena 4 € / Asteazkena 3,90 € / Gainerakoak 5,50 €  
Film laburren saioa: Asteazkena 3,90 €

12

astelehena  
11:00  
eta  
20:00etan

## Chavela

Catherine Gund eta Daresha Kyi (Ameriketako Estatu Batuak, 2017, 90´)

Chavela Vargas abeslaria mito bat da Mexikon eta mundu guztian, bereziki rantsera tradizionalak interpretatzeagatik –rantserak gizonek konposatutako kantuek izaten dira, haiek maite-minduta egon arren maitasun hori bueltan eskaintzen ez dieten emakumeek hitz egiten dutenak, eta munduaren nekez eta bakardadeaz ere bai–. Chavelak berezko erritmo batean interpretatzen zituen, ahots latz eta ahul batez eta sentimendu handiz. Film honetan, orain arte argitaratu gabeko materiala eskaintzen da, baita Chavelarekin berarekin eta garai hartako bere lagun eta bikotekideekin izandako elkarrizketak ere. Horren guztiaren emaitzez, karisma handiko artista aparta baten gaineko erretratu bat lortzen da, maitasunez bete, bere bizitzan aho betearen lesbiana izan zen emakume hari buruz.

**Catherine Gund.** *Aubin Pictures*-eko zuzendaria eta fundatzailea da, Emmy sarira izendatutako ekoizlea, zuzendaria, idazlea eta aktibista. Komunikabideetan egiten duen lanak honako gai hauek hartzen ditu ardatz: eraldaketa sozial estrategikoa eta jasangarria, arteak eta kultura, ugalketa-osasuna, GIB/Hiesa eta ingurumena. Honako erakunde hauen kofundatzailea da: *Third Wave Foundation*, emakume gazteei eta gazte transexualak laguntzeko; *Bent Tv* bideo-tailerria, gazte homosexual, lesbiana, bisexual eta transexualentzat; eta *Diva Tv*, dokumental-egile ospetsuak, hiesaren aurkako borrokan aritzen direnak.

**Daresha Kyi.** Sari asko lortutako zinemagile eta telebista-ekoizlea da, negozioan 25 urte gora daramatzana. New Yorkeko eszena independente zinematografikoan lan egin ondoren, zinema-eskolara joatea erabaki zuen, eta New Yorkeko *Artes Tisch eskolako bekadunen programako kide bihurtu zen*, baita bertan graduatu ere. Era berean, beka bat eskuratu zuen *Amerikako Zinema Institutuan* (AFI), Isaiah Washingtonekin batera idatzi, ekoizti, zuzendu eta koprotagonizatu zuen film-labor honi esker: *En la tierra donde murieron mis padres*.

Gonbidatua solasaldian: **Daresha Kyi**, filmaren zuzendaria.



13

asteartea  
11:00  
eta  
20:00etan

## Aurora (Jamais contente)

Emilie Deleuze (Frantzia, 2016, 90´)

Ikusle Gazteen EFA saria, 2016an, Europako Zinema Akademiak emana; 2016ko Berlingo Jaialdian estreinatua zen

Egia da, Aurorek ez ditu nota onenak lortzen, baina ez da ergela. Modu berezia du bere inguruan gertatzen dena –familia, lagunak, irakasleak, baita bera ere– ikusi eta komentatzeko, eta, pertsona gehienek ustez, oso bizimodu misteriozkoa du. Desafiatzaile, burlari, kaskagor, Aurorek proban jartzen ditu mugak, eta musika aurkitu berri du adierazpide gisa; halaber, beste gauza bat ere ezagutu du, ez dela frigidoa, horren kezka baitzuen. Haren begiradaren bitartez ezagutuko ditugu gaur egungo nerabe baten bizipena eta harengan izandako aldaketa guztiak. Filmak nerabeentzako nobela-trilogia frantziar ospetsu bat hartzen du oinarri: *Le journal d'Aurore*.

**Emilie Deleuze.** Zuzendari eta gidoilari frantziarra. 1986tik, zortzi film zuzendu ditu, besteak beste *Monsieur Pierre* (1986), *Coup de sang* (1990) eta *Lettre à Abou* (2001). Egindako filmen artean, *Peau neuve* filmak Fipresci saria eskuratu zuen Cannesko Jaialdiko Certain Regard atalean, 1999an, eta *Mister V.* (2003) filma lehian aritu zen Locarnoko Jaialdian, urte hartan bertan.

Gonbidatua solasaldian: **Ana Beaumont Fernández**, Psikologo Klinikoa, ikuspegi sistematikoan espezializatua; Aditua Generoan eta baterako hezkuntzan; gainera, prestakuntza-emakumeen da gizarte eta hezkuntza arloetako gaietan eta genero-berdintasunean, baita diziplina anitzeko (psikologia, gizarte-lana, gizarte-hezkuntza, etab.) lantalde profesionalen gainbegiratzailea ere.

